

2002-4-19, 353 zk.

Auzozauzo

Martutene


«Alferra naiz asmatzailea baino»

Pablo Díaz de Gereñuk bizitza osoa darama objektu eta tresnak asmatzen. Tornadore ogibidez, Martuteneko tailerlean makina mordo sortu eta eraldatu ditu. Egun, erretiratuta dagoen arren, ez du asmatzaile sena galdu.

Aitor Urkizu Azuabarrena

Noiz ekin zenien asmakuntzei?

Lehen asmakuntza hamalau urterekin egin nuen. Garai hartan tailer batean lan egiten nuen, eta bertako makina batek zenbait pieza gaizki egiten zituen. Ditxosozko makina arreta handiz aztertu eta akatsa non zegoen konturatu nintzen. Konpondu eta gero makinak pieza guztiak ondo egiten zi-



tuen. Geroago gauza bera lortu nuen beste makina batekin eta nagusiak, pozaren pozez, soldata igo zidan!

Asmatzailetzat jotzen al duzu zure burua?

Ezta gutxiagorik ere. Asmatzailea baino alferra naizela esango nuke. Ahalik eta denbora gutxienean ahalik eta gauza gehien egitea gustatzen zait.

Tornadore gisa lan egin duzu hainbat urtetan...

Bai, zenbait lantegitan aritua naiz. Frantzian ere lan egin izan dut, Lyonen, hain zuzen ere. Hasieran, bertara hamabost egunetarako joan nintzen oporrak igarotzera. Hala ere, hango lantegietako soldata aintzat hartuta, bertan geratu nintzen hamahiru urtez.

Saririk irabazi al duzu?

Bai, sariren bat edo beste eskuratu dut. Esaterako, 1989-an Valentzian bi urtean behin egiten den "La Europea" izeneko lehiaketan, nik sari nagusia irabazi nuen. "Fayeba" eta kable zuritzailearekin lortu nuen saria. Expo 92an ere izan nintzen beste gauza batzuekin.

Aipaiezaguzu eginiko asmakuntzaren bat

Kable zuritzailea, burdina zulatzeko "Fayeba" izeneko makina, barnean ura duen hautsontzia... Asmatutako hautsontzietan, uraren eraginez, mozkina utzi eta berehala itzaltzen da. Dena dela, nik ez ditut proiektuak buruan izaten denbora luzez. Zerbait aldatzeko edo sortzeko premia sumatzen dudanean, orduan ekiten diot lanari.

Hedabideetan behin baino

gehiagotan atera da Santa Klaratik Haizearen Orrazira eta Urgullera bi zubi jartzearen proiektua. Egitasmo horretan ere aritu zara, ezta?

Bai, hala da. Oso ideia interesgarria da, eta gainera, ez dio inolako kalterik eragiten badiako irudiari. Zubiak plastikoz gardenez eginikoak lirateke eta balea eta antxoaren irudiak islatuko lituzkete, haizearen arabera. Haizerik gabe balearen irudia ikusiko genuke eta haizearekin, aldiz, antxoena. Gainera, oso egitasmo merkea da, eta donostiarrak egunen batean nazkatuz gero, aparteko arazorik gabe kentzeko modukoa.

Aisialdirako zein eraberri-tze lan egingo zenuke Donostian?

Duela urtebete Donostiako Udalera deitu eta Martuteneko berdeguneraren batean mini-golf zelaia egitea proposatu nien. Ideia ez zaie gaizki iruditu eta aztertzeotan geratu ziren.

Jon Lertxundi Trinketen

Hilaren 20an, larunbata, Jon Lertxundik poesia emanaldia eskainiko du Trinkete tabernan. Emanaldia 23.00etan hasiko da.



Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza
obra social